



**Hezkuntza publikoan  
lan baldintzak hobetu.**  
Hemen eta orain erabakita.

**Prentsa oharra:**  
**Urtarrilak 30eko greba balorazioa**

## **Sukalde eta garbiketako grebak %70tik gorako jarraipena izan du**

LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deitutako grebak jarraipen zabala izan du. Hezkuntza Saileko Sukalde eta Garbiketako 1.000 langile daude gaurko grebara deituak. Salatzekoa da Eusko Jaurlaritzak kolektibo honen **greba eskubidea baldintzatu** nahi izan duela. **Gehiegizko zerbitzu minimoak ezarriz**, hauek ezartzen dituen aginduan egindako akatsak azken orduan zuzenduz eta zerbitzu minimoen aplikazioan interpretazio zorrotzeziak erabiliaz.

Hau horrela izan arren, greba egiteko aukera izan duten langileen artean, **grebak %70etik gorako jarraipena** izan du. Besteak beste, aipatzekoak dira, **gutxieneko zerbitzuak kenduta langileen %100ak greba egin duen** ondorengo **eskoletako sukaldeak**:

- **Gipuzkoan:** Donostiako Ikasbiden, Hernaniko Meaben, Urretxuko Gain Zurin, CEIP Errekalde Oñatin, Hondarribiko Talaian Egape Urnietan eta Mutrikun.
- **Bizkaian:** Bilboko San Inazio eta CEIP Pio Baroja, CEIP Mendia Balmasedan, CEIP Concha Karrantzan, eta CEIP Orozko.
- **Arabian:** Gasteizko Gamarran, Araiako herri eskolan, Dulantzín eta Langraitzen.

**Garbiketan** langile gehienek arratsaldean egiten dute lan, baina egun hauetan jasotako datuen arabera grebaren **jarraipena oso zabala** izango da esparru honetan ere. **Jarraipena erabatekoa** izango da **besteak beste** Bergarako Ipintza eskolan, Donostiko Zubiri Manteo, Zarautzeko eskolan, Elgoibarrekoan, Gasteizko Hizkuntza Eskolan eta Francisco de Vitorian.


Grebak izandako babesaren erakusle da Bilbon **“Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita”** lelopean izandako giza katean ehundaka langile elkartu izana.

**Kolektibo** hau da zalantzarik gabe **feminizatuena** den Hezkuntza saileko esparrua. Baita **lan baldintza prekarioenak** dituen ere eta **pribatizazio prozesu handiena** bizi duena. 2009 urtetik hitzarmena, eta ondorioz lan baldintzak, eguneratu gabe dituzte langileek.

Hitzarmena berritzeko grebetako **aldarrikapen nagusiak** hauek dira: **lan zamak** arintzeko bazkaltiar eta garbiketarioak hobetzea eta lanaldiak murriztea; erretiroa aurreratzeko **gazteberritze planak** adostea; galdutako **eros-ahalmena berreskuratzea**; **funtzioak** definitzea eta **kategoriak** egokitzea; **enplegua egonkortzea** eta pribatizazio zein fusio edo itxieren bidez lanpostu suntsiketarako eragozteko neurriak hartzea, ordezkoen lan baldintzak hobetzea, lizentziak eta baimenak hobetzea eta **lan osasuna, berdintasuna eta euskara planak** garatzea.

**Azkenengo negoziazio mahaia** urtarrilaren 27an izan zen, sailak deituta. Halaber azken urteetan gertatu ohi den moduan, **ez zen fundamentuzko edukirik** mahai gaineratu eta gainera **greba deialdia bertan behera uzteko aurrekordio proposamena** egin zigun. Edukirik gabeko bilerak deitzeari uzteko eta aldarrikapen hauei erantzun dion proposamena jorratzeko eskatu diote gaurkoan langileek Hezkuntza Sailari.

Gaurko egunari jarraipena emanez, **bihar ere greba eguna** da hezkuntza publikoko sukaldeetan eta garbiketan. **Kontzentrazioak** burutuko ditugu **EAEko hiru hiriburuetako Hezkuntza ordezkartzetan**, goizeko 11.30ean.



**Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.**  
Decididas aquí y ahora.

COCINA/LIMPIEZA

**Nota de prensa:**  
**Valoración de la huelga del 30 de enero**

## **La huelga de cocina y limpieza ha tenido un seguimiento superior al 70%**

La huelga convocada por LAB, ELA y CCOO ha tenido un amplio seguimiento. 1.000 trabajadores y trabajadoras de Cocina y Limpieza del Departamento de Educación están llamados a la huelga de hoy. Es de denunciar que el Gobierno Vasco ha **pretendido condicionar el derecho de huelga** de este colectivo. Estableciendo unos **servicios mínimos excesivos**, corrigiendo a última hora los errores cometidos en la orden que los establece y utilizando interpretaciones excesivamente estrictas en la aplicación de los servicios mínimos.

A pesar de ello, entre los trabajadores las trabajadoras que han podido hacer huelga, ha tenido **un seguimiento superior al 70%**. Entre otras, cabe destacar las cocinas de las siguientes escuelas en las que **el 100% de la plantilla ha hecho huelga, exceptuando los servicios mínimos**:

- **En Gipuzkoa:** Ikasbide de Donostia, Meabe de Hernani, Gain Zuri de Urretxu, CEIP Rekalde de Oñati, Talaia de Hondarribia, Egape de Urnieta y Mutriku.
- **En Bizkaia:** San Ignacio de Bilbao y CEIP Pío Baroja, CEIP Mendia en Balmaseda, CEIP Concha en Karrantza, y CEIP Orozko.
- **En Araba:** Gamarra en Vitoria, Escuela Pública de Araia, Alegría-Dulantzi y Langraitz.

La mayoría del **personal de limpieza** trabaja en horario de tarde, pero según los datos recogidos estos días el **seguimiento** de la huelga será **muy amplio** también en este ámbito. El **seguimiento será total en** la escuela Ipintza de Bergara, Zubiri Manteo de Donostia, la escuela de Zarautz, la de Elgoibar, la Escuela de Idiomas y Francisco de Vitoria de Gasteiz, entre otros.

Muestra del apoyo a la huelga es la concentración de cientos de trabajadores y trabajadoras en la cadena humana de Bilbao bajo el lema **"Mejora de las condiciones laborales, aquí y ahora decididos"**.

Este **colectivo** es sin duda el **más feminizado** en el ámbito del departamento de Educación. También el que tiene unas **condiciones laborales más precarias** y la que vive un **mayor proceso de privatización**. Este colectivo no tiene actualizado desde el año 2009 el convenio y, en consecuencia, las condiciones laborales.

Las **principales reivindicaciones** de las huelgas para renovar el convenio son: mejorar los ratios de comensales y limpieza para aliviar las **cargas de trabajo** y reducir las jornadas laborales; acordar planes de **rejuvenecimiento** para anticipar la jubilación; recuperar el **poder adquisitivo** perdido; definir las **funciones** y adecuar las **categorías**; **estabilizar el empleo** y adoptar medidas para evitar la destrucción de puestos de trabajo mediante privatizaciones y fusiones o cierres, mejorar las condiciones laborales del personal sustituto, mejorar las licencias y permisos y desarrollar **planes de salud laboral, igualdad y euskera**.

La **última mesa de negociación** convocada por el departamento fue el 27 de enero. Asimismo, tal y como viene ocurriendo en los últimos años, **no trajo contenido** de fundamento en la mesa y, además, nos hizo una **propuesta de preacuerdo para desconvocar la huelga**. Los trabajadores y trabajadoras han pedido hoy al Departamento de Educación que deje de convocar reuniones sin contenido y que aborde una propuesta que responda a estas reivindicaciones.

Dando continuidad a la jornada de hoy, **mañana también es jornada de huelga** en las cocinas de la educación pública y en la limpieza. Realizaremos **concentraciones en las delegaciones de Educación** de las **tres capitales de la CAV**, a las 11:00h.

**LAB**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**CCOO**  
irakaskuntza